



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Aliatuen errekorrak

Pforzheim (Alemania), 1945eko otsailaren 23a. Iluntzeko zortziak jotzear zirela, hegazkin aliatuak hiria bonbardatzen hasi ziren bomba su-eragileekin. Erasoak sarraski izugarria eragin zuen denbora gutxian. Baina Pforzheimen gertatutakoa itzalean geratu zen, egun batzuk lehenago, hilaren 13tik 15era, aliatuek Dresden bonbardatu zutelako.

Kurt Vonnegut idazle estatubatuarra (1922-2006) Dresdeneko suntsipenaren lekuko izan zen; Bigarren Mundu Gerran armadarentzat begiztatzaile lanetan aritua, une horretan alemaniarrek preso zeukaten eraso egindako hirian. Berak azaldu zuen bomba su-eragileek egiten dutena: sotoetan eta babeslekuetan topatu zituzten milaka gorpuak ez zeuden erreta. Soto haiek “bihotzekoak jota hildako jendez betetako tranbiak ziruditen”. Bomba su-eragileek oxigenoa kontsumitzen dute eta Dresdeneko biktima gehienak itota hil ziren.

Vonnegutek datu lazgarri batzuk ere bota zituen. “Europar inoiz azkarren egindako sarraskia izan zen, persona kopuru handiena denbora gutxienean eragin zituena: 135.000 biktima ordu batzuetan. Sarraski handiagoak izan dira, baina mantsoagoak”. Vonneguten datuak ez dira errealak. Datu zehatzik ezean, gaur egun bonbardaketan 25.000 pertsona inguru hil zirela kalkulatu da, eta eraso hiru egunez luzatu zen.



Alemaniako Dresden hiria duela 80 urte, 1945eko otsailaren 13tik 15era bonbardatu ondoren.

Gainera, hamar egun geroago, Pforzheimen gertatutakoak Vonnegutek aipatutako marka hori erraz gainditu zuen. 20 minutu eskasetan 17.600 pertsona hil zituen erasoak. Dresdeneko erasoan hiriko biztanleen %5 inguru hil ziren eta Pforzheimen, aldiz, %25.

Aurrez, 1943ko uztailean Hanburgo airez erasotu zutenean ere Dresdeneko marka hautsi zen –30.000 hildako gau bakarrean–, eta 1945eko martxoaren

12ko Świnoujście hiriko (Polonia) bonbardaketan ziurrenik ere bai, nahiz eta datu zehatzik ez izan, ordu erdi inguruan milaka pertsona hil zituztelako. Eta Europara mugatzen ez bagara, Hiroshima eta Nagasakin bota zituzten bomba atomikoek azkar egindako sarraski handien marka guztiak txikitu zituzten.

Aipatutako errekor hauek guztiak aliatuek hautsi zituzten, irabazle zintzoen bandoak. ●



ANTONIO RODRIGUEZ-HIDALGO / IAM

Kanibalismoa bizirauteko

Poloniako Maszycka kobazuloan duela 18.000 urteko arrastoak topatu zituzten XIX. mendearen amaieran. Baina berriki giza hezurak teknologia berriak erabiliz aztertu eta kanibalismo zantzu garbiak aurkitu dituzte. Ez da ikerlan bat ondorio horretara iristen den lehen aldia, baina aurrez nagusitu izan den helburu erritualen hipotesia baztertu dute *Scien-*

tific Report aldizkarian argitaratutako artikuluan. Batetik, hezurretako markek agerian uzten dute giza gorputzaren zati nutritiboak kontu handiz bereizi zituztela. Bestetik, testuinguruak, populazioaren igoerak, komunitateen arteko gatazkek eta baliabide eskasiak pentsarazten dute bizirauteko jo zutela kanibalismora. ●